



KALE ERABILERAREN NEURKETA BORTZIRIAK 2013

EMAITZEN TXOSTENA

Arantzan, 2014ko urtarrilaren 17an
Urko Ikardo Enparan
Bortzirieta Euskara teknikaria

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA BORTZIRIAK 2013

1.	SARRERA	3
2.	METODOLOGIA	4
3.	BORTZIRIAK	5
3.1.	Emaitza orokorrak	5
3.2.	Kale erabileraren bilakaera Bortzirietan	5
3.3.	Kale erabilera adin taldeka	5
3.4.	Kale erabileraren bilakaera adin taldeka	6
3.5.	Kale erabilera sexuaren arabera	6
3.6.	Kale erabilera, sexua eta adina	7
3.7.	Adin talde berekoen arteko elkarrizketak	7
3.8.	Haurren arteko elkarrizketak	8
3.9.	Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak (haurrik ez tarteko)	9
3.10.	Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak, haurrak presente direnean eta haurrak solaskide ez direnean	9
3.11.	Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak, haurrak presente daudenean eta solaskide direnean	10
4.	HERRIZ HERRI	11
4.1.	Emaitzak herriz herri	11
4.2.	Kale erabilera herriz herri eta adin taldeka	11
4.3.	Kale erabileraren bilakaera herriz herri	12
5.	EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA PAREZ PARE	13
6.	ONDORIOAK	14

1. SARRERA

Kale erabileraren neurketak eremu publikoan edo karriketan jendeak erabiltzen duen hizkuntza neurtzen du. Maiztasun jakin batekin egiten den ikerketa honek euskararen ahozko erabilera zenbatekoa den jakiteko aukera eskaintzen digu¹. 1989az geroztik, Euskal Herria bere osotasunean ikergai hartuta egin izan dira kale neurketak. Hasieran 4 urteko maiztasunarekin egiten ziren, eta, 2006az geroztik, 5 urteko maiztasunarekin, erroldako datuekin alderaketak egiteko. Bortzirietan, 1994an hasi ginen erabilera datuak biltzen kale neurketaren bidez, eta neurketak gehienetan 2 urteko maiztasunarekin egin ziren 2011 urtera arte. Ordutik aitzinera neurketak 2 eta 3 urteko maiztasunarekin egitea erabaki genuen².

Ikerketa honen bidez hizkuntzaren egoera modu errealenean ezagutzeko neurri bat eskuratzea dugu xede. Eta, batez ere, argazki finkoa ateratzeko baino, euskararen erabileraren joera zein den ezagutzeko baliagarriak zaizkigu kale neurketak.

Izan ere, euskararen normalizazioan aitzinera ari ote garen jakiteko ezinbertzekoa zaigu aldian-aldian ikerketa soziolinguistikoak egitea. Kale erabileraren neurketatik lortzen diren datuak euskararen egoera zein den ezagutzeko eta hizkuntza politika gidatzeko adierazle garrantzitsuak dira.

1 Kale-erabileraren neurketetatik lortutakoek kualitatiboki guztiz garrantzitsua den informazioa eskaintzen digute; azken batean, hizkuntza normalizazio-prozesuaren arrakasta-mailaren indizerik fidagarrienetako bat, hitzunek hizkuntzaz egiten duten erabilera baita, eta soziolinguistikaren teoria nagusi guztiak bat datoz esatean, hitzunen arteko harreman ohikoenak eta gertuenak direla hizkuntzaren bizi-indarraren islarik garbiena. Kaleko erabilerak, beraz, informazio aberatsa eskaintzen digu, hizkuntzen presentzia sozialaz, prestigioaz, erabilera-mailez, irabazi-galerez, etab. Kike Amonarriz. *2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak*. Bat aldizkaria. 2007ko iraila (64. zenb.).

2 Hala, 2011tik hasita, neurketa bat eginen dugu bi urtera, eta, hurrengo, hirura. Alegia, hurrengo neurketak 2013an eta 2016an izanen direla, eta, etorkizunean, sekuentzia horri segi eginen diogula. *Kale erabilera 2011 txostena*. Urko Ikardo.

2. METODOLOGIA

Kale erabileraren neurketa egiteko erabiltzen den teknika behaketa zuzena da³. Inkesta bidez, norberak bere buruari aitortzen dion erabilera maila jasotzen da; hau da, erabilera aitortua edo subjektiboa deitu ohi dena. Kale neurketan, berriz, inkestan ez bezala, mintzatzen ari denari ez zaio deus galdetzen, entzun eta hizkuntza jasotzen da modu objektiboan.

Kalean entzuten diren elkarrizketak neurtu ditugu. Neurtzaileek jasotako datuek adierazten dute entzun eta zenbatu diren pertsona horiek toki eta une horretan zein hizkuntza darabilten; zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten.

Espazio publikoa aztertu dugu. Kalea da espaziorik neutralena; hizkuntza gaitasun, hizkuntza joera eta pentsaera ezberdineko jendea dugu bertan. Karrikarik jendetsuenak, plazak, parkeak, eta jolastokiak neurtu ditugu. Toki itxiak ez ditugu neurtu.

Udalerrri bakoitzean ibilbide bati segi diogu, eta aitzineko neurketetan erabili ditugun berberak izan dira funtsean. Neurtzaileak neurketak iraun duen orduetan gora eta behera ibili dira ibilbidean barrena datuak biltzen. Harat honat horretan entzun dituzten elkarrizketak neurtu dituzte.

2013ko kale neurketa urriaren 23an eta 26an egin da. Asteazkenean 17:00etatik 19:00etara, eta, larunbatean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Behatutako pertsonen erabilitako hizkuntzarekin batera, bertze aldagai batzuk ere neurtu ditugu: adina, sexua, taldearen osaera (adin talde berdinen eta ezberdinen arteko elkarrizketak), eta haurren presentziak duen eragina.

Lehenik eta behin, lau adin talde bereizi ditugu, haurrak (0-14 urte), gazteak (15-24 urte), helduak (25-64 urte), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak). Neurtzaileek hiztunen eta entzuleen adina erabaki dute, betiere, inori deus galdetu gabe.

Bigarrenik, emakumezkoak ala gizonezkoak ote diren behatu dugu.

Hirugarrenik, taldearen osaera behatu dugu, eta bi multzo bereizi ditugu, batetik, adin talde berekoak, eta, bertzetik, adin talde ezberdinekoak.

Azkenik, haurren presentzia aztertu dugu. Adin talde berekoen artean elkarrizketak neurtu ditugu (haurrak tartean). Adin talde ezberdinekoen arteko dagokienez, berriz, hiru egoera zehaztu dira: haurren presentziarik gabeko elkarrizketak, haurrak presente egon, baina parte hartzen ez duten elkarrizketak, eta, azkena, haurrak mintzakide direnak.

Datu bilketarako erabili dugun fitxa Soziolinguistika klusterrak diseinatu du.


³ Gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe, era sistematiko eta kontrolatuan behatzen duen teknika da. Teknika honekin ez ditugu hitzezko, idatzizko edo ikus-entzunezko estimulu (inkesta, gidoia...) eragina jaso duten pertsonen erantzunak aztertzen, euren portaerak baizik. Juaristi, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. EHU, Bilbo.

3. EMAITZAK

3.1. Emaita orokorrak


BORTZIRIAK 2013						
	Biztanleak	Neurtuak	%	Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz %
Bortziriak	8.702	1.693	19,5	984	709	58,1

- Hiru neurraldi egin ditugu, eta 1.693 lagun entzun ditugu solasean.
- Entzundakoen artean, 984 lagun ari ziren euskaraz, hamarretik sei baino gutxiago.
- Bortziritan, euskararen **erabilera maila orokorra**, kale erabileraren neurketaren emaitzetan oinarrituta, **% 58,1** da.



3.2. Kale erabileraren bilakaera Bortziritan

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN 1994-2013											
	1994	1995	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2010	2011	2013
Euskaraz	61	66	69	62	63	60	59	68	66	61	58



- Euskararen erabileraren **bilakaera ez da norabide bakarrekoa** izan azken hamabortzaldian; batzuetan gora egin du eta bertzeetan behera, baina egonkor xamar mantendu da betiere.
- 11 neurketa** egin ditugu metodologia bera errepikatuz. **Emaitza apalenaren eta altuenaren artean 11 puntuko aldea dago (%58 eta % 69)**. Horiek dira Bortziritan beheko eta goiko atalaseak. **Aurten** jaso dugu inoizko **erabilera daturik baxuena**.
- Emaitza guztien **media % 63** da.


3.3. Kale erabilera adin taldeka

EUSKARAREN ERABILERA ADIN TALDEKA 2013					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
Euskaraz	431	85	388	80	984
Gaztelaniaz	143	26	427	113	709
Guztira	574	111	815	193	1.693
Erabilera	75,1	76,6	47,6	41,5	100,0

- Haurren artean **10etik 7 euskaraz** ari zen (**%75,1**), baita gazteen artean ere (**%76,6**). Adin taldeka, **gazteena** da **euskara gehien erabiltzen duena**.
- Alde nabarmena dago haurren eta gazteen, eta, helduen eta adinekoen artean. Berteze modu batera errateko, **haurrak eta gazteak ertainetik goiti** daude nabarmen, eta **helduak eta adinekoak ertainetik beheiti**.
- Erabilera mailarik **apalena adinekoena** da (**%41,5**).

3.4. Kale erabileraren bilakaera adin taldeka

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BORTZIRIETAN ADIN TALDEKA 1994-2013				
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak
1994	74	47	54	78
1995	86	60	51	69
1997	89	62	51	84
1999	67	57	57	72
2001	82	60	46	53
2003	82	67	45	60
2006	79	81	39	62
2008	82	76	55	64
2010	88	84	48	53
2011	79	76	46	44
2013	75	77	48	41




- Ia neurketa gehienetan **haurrak** izan dira euskara **gehien** erabili dutenak. Azkeneko neurketetan ordea, **behera egin du erabilerak** hauren artean; 1994an baino ez zen neurtu aurtengoa baino erabilera apalagorik.
- **Gazteen artean, zertxobait egin du gora** erabilerak. Mailarik **altuena** 2010ekoa da (**% 84**), **eta aurtengoa**, 2011koa eta 2008koa parekoak dira (**%76-77**).
- **Helduen artean**, euskararen erabilerak **beheranzko joera** izan du, baina aurtengoak zertxobait gora egin du gora 2011rekiko. 11 neurketa hauen **media % 49 ingurukoa** da.
- **Adinekoen artean erabilerak beherantz** egin du azkeneko urteotan, eta azkeneko bi neurketetan erabilera mailarik apalena eurena da.

3.5. Kale erabilera sexuaren arabera

KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA 2013			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
Emakumeak	525	388	913
Gizonak	459	321	780
Guztira	984	709	1.693

- Emakumezko gehiago neurtu dugu gizonetzko baino; hortaz, bada alderik (gehienetan emakume gehiago neurtu dugu).

KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA 2013		
	Euskaraz	Gaztelaniaz
Emakumeak	57,5	42,5
Gizonak	58,8	41,2



- Neurtutako emakumeen % 57,5 ari zen euskaraz. **Gizonezkoen artean altuxeagoa** da zenbatekoa, % **58,8**.
- Neurketa gehienetan gizonezkoen erabilera maila emakumezkoenaren gainetik egon da, nahiz eta azkeneko honetan aldea txikixeagoa izan.

KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA EUSKARAZ BILAKAERA 2006-2013		
	Emakumeak	Gizonak
2006	56,1	63,4
2008	68,2	68,8
2010	61,5	70,9
2011	59,1	62,1
2013	57,5	58,8


3.6. Kale erabilera, sexua eta adin taldea

ERABILERA, SEXUA ETA ADIN TALDEA 2013										
	Haurrak		Gazteak		Helduak		Adinekoak		Guztira	
	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz	Eus	Gaz
Emakumeak	184	61	47	14	249	244	45	69	525	388
Eus %	75,1		77,0		50,5		39,5		57,5	
Gizonak	247	82	38	12	139	183	35	44	459	321
Eus %	75,1		76,0		43,2		44,3		58,8	

- Haurren artean izan ezik, gainerako adin taldeetan **alde adierazgarria dago emakumezkoen eta gizonezkoen** erabilera zenbatekoen artean. **Gazteen** artean, emakumeen erabilera maila **6 puntu altuagoa** da gizonezkoena baino, eta **4 puntu altuagoa helduen** artean.
- Ondorioak ateratzeko tentuz ibili beharra dugu, laginak txiki xamarrek direlako.

3.7. Adin talde berekoen arteko elkarrizketak

ADIN TALDE BEREKOEN ARTEKO ELKARRIZKETAK 2011			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
Kopuruak	601	378	979
Ehunekoak	61,4	38,6	100



- Adin talde berekoen arteko elkarrizketak aztertuta, **erabilera maila altuxegoa** da emaitza orokorra baino (**%61,4**).


ADIN TALDE BEREKOEN ARTEKO ELKARRIZKETAK BILAKAERA 2006-2011

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
2006	59,9	40,1	100
2008	65,9	34,1	100
2010	61,5	38,5	100
2011	61,4	38,6	100

- Adin talde berekoen arteko elkarrizketei dagokien emaitza 2008koa baino eskasagoa da (4 puntu gutxiago), eta 2010ekoaren antzekoa, % 60aren buelta horretan.

ADIN TALDE BEREKOEN ARTEKO ELKARRIZKETAK 2011

Haurrak		Gazteak		Helduak		Zaharrak	
Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz
331	42	94	24	133	261	43	51
88,7	11,3	79,7	20,3	33,8	66,2	45,7	54,3



- Adin talde berekoen elkarrizketak hizpide, nabarmena da **haurrak euren artean** ari direnean lortzen dela **erabilera daturik altuena, % 88,7**.
- Nabarmenezkoa da, halaber, **gazteen arteko erabilera datua altua** dela, **% 79,7**.
- Helduek euren artean** erabiltzen dute **gutxien** euskara (neurketa honetako **emaitzarik kaxkarrena** da), **% 33,8**.
- Adinekoen arteko elkarrizketetan ere gaztelania da nagusi.

ADIN TALDE BEREKOEN ARTEKO ELKARRIZKETAK ADIN TALDEKA 2006-2011

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2006	93,5	82,8	26,8	65,1
2008	86,3	71,3	43,6	67,2
2010	92,6	83,0	36,1	47,1
2011	88,7	79,7	33,8	45,7

- Azken urte hauetako emaitzek agerian uzten dute **haurrek eta gazteek euren artean nagusiki euskaraz** egiten dutela, eta helduek, berriz, gaztelaniaz.

3.8. Haurren arteko elkarrizketak

HAURREN ARTEKO ELKARRIZKETAK 2001-2011			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
2001	88	12	100
2006	94	6	100
2008	86	14	100
2010	93	7	100
2011	89	11	100

- Haurren arteko elkarrizketei erreparatzen badiegu, erabilera mailaren **media aztertutako 4 urteotan % 90 ingurukoa** da. Horrek erran nahi du **10 elkarrizketatik 9 euskaraz** direla haurren artean, eta haurrek euren artean aritzen direnean izaten dela **erabilera mailarik altuena**.

3.9. Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak, haurrek ez dagoenean tarteko

ADIN TALDE DESBERDINAK ETA HAURREK EZ 2011			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
Kopuruak	65	96	161
Ehunekoa	40,4	59,6	100

- Hagitz lagin txikiak bildu ditugu.
- Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketetan, haurrek ez denean, erabilera maila **% 40,4** da; hortaz, emaitza orokorra baino dezentez baxuagoa.

ADIN TALDE EZBERDINAK ETA HAURREK EZ BILAKAERA 2006-2011			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
2006	41	59	100
2008	63	37	100
2010	52	48	100
2011	40	60	100

- Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketetan (**haurrek ez denean**), adin talde berekoen arteko elkarrizketetan baino **gutxiago egiten da euskaraz**. Dena dela, lagin txiki xamarrek dira.

3.10. Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak, haurrek presente direnean eta solaskide ez direnean

ADIN TALDE EZBERDINAK HAURREK PRESENTE, BAINA EZ SOLASKIDE 2011			
	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
Kopuruak	103	119	222
Ehunekoa	46,4	53,6	100

- Lagin txikiak bildu ditugu.
- Adin talde ezberdinekoak elkartzen direnean, eta haurrak tartean direnean nahiz eta mintzakide ez izan, erabilera **portzentajea % 46,4** da (**emaitza orokorra baino aunitzez ere baxuagoa, baina haurrak presente ez direnean baino altuagoa**).

**ADIN TALDE EZBERDINAK
HAURRAK PRESENTE, BAINA EZ SOLASKIDE
BILAKAERA 2001-2011**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
2001	47	53	100
2006	42	58	100
2008	61	39	100
2010	58	42	100
2011	46	54	100

- Normalean **erabilera maila orokorretik beheiti** kokatzen da adin ezberdinen arteko erabilera portzentajea, haurrak presente egon arren solaskide ez direnean, baina 2011ko emaitza 2008koa eta 2010eko baino aunitzez eskasagoa da.

3.11. Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak, haurrak solaskide direnean

**ADIN TALDE EZBERDINAK ETA HAURRAK SOLASKIDE
BILAKAERA 2011**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
Kopuruak	353	139	492
Ehunekoak	71,7	28,3	100

- Kasu honetan lagina zertxobait handiagoa da.
- Adin ezberdinekoen arteko elkarrizketetan **haurrak presente direnean eta gainera solaskide, erabilera mailak dezente egiten du gora (% 71,1)**. Horrek agerian uzten du haurrak solaskide izateak erabilera maila gorantz eramaten duela (haurren presentzia hutsak ez du hori lortzen).

**ADIN TALDE EZBERDINAK ETA HAURRAK SOLASKIDE
BILAKAERA 2001-2010**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Guztira
2001	57	43	100
2006	74	26	100
2008	84	16	100
2010	81	19	100
2011	72	28	100


- Bilakaerari erreparatuta, 2006tik aurrerako neurketetan nabaria **da haurrak solaskide izateak eragin handia duela talde ezberdinekoen arteko elkarrizketetan**, euskararen **erabilera media baino dezente altuagoa** izan dadin.

4. HERRIZ HERRI

4.1. Emaitzak herriz herri

BORTZIRIAK 2011						
	Biztanleak	Neurtuak	%	Euskaraz	Gaztelaniaz	Erabilera
Arantza	647	219	33,8	187	32	85,4
Bera	3.730	387	10,4	170	217	43,9
Etxalar	827	493	59,6	248	245	50,3
Igantzi	632	134	21,2	109	25	81,3
Lesaka	2.822	621	22,0	408	213	65,7
Bortziriak	8.658	1.854	21,4	1.122	732	60,5

- Bortz herrien artean **alde nabarmena** dago erabilerari dagokionez.
- **Arantzakoa** da erabilera maila **altuena (%85,4)**, eta, **Berakoa**, berriz, **baxuena (%43,9)**.
- **Arantza eta Igantziko** portzentajeak **antzekoak** dira.
- **Etxalarko emaitzek aparte**ko azalpena eskatzen dute. Maiz **kanpoko jende aunitz** dabil herrian barrena, eta horrek eragin nabarmena dauka.



4.2. Herriz herri eta adin taldeka

EUSKARAREN ERABILERA ARANTZAN 2011					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Euskaraz	70	9	86	22	187
Gaztelaniaz	6	0	21	5	32
Guztira	76	9	107	27	219
Erabilera	92,1	100,0	80,4	81,5	85,4

EUSKARAREN ERABILERA BERAN 2011					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Euskaraz	73	40	43	14	170
Gaztelaniaz	55	28	106	28	217
Guztira	128	68	149	42	387
Erabilera	57,0	58,8	28,9	33,3	43,9

EUSKARAREN ERABILERA ETXALARREN 2011					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Euskaraz	139	14	80	15	248
Gaztelaniaz	53	1	165	26	245
Guztira	192	15	245	41	493
Erabilera	72,4	93,3	32,7	36,6	50,3

EUSKARAREN ERABILERA IGANTZIN 2011					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Euskaraz	57	9	32	11	109
Gaztelaniaz	4	0	21	0	25
Guztira	61	9	53	11	134
Erabilera	93,4	100,0	60,4	100,0	81,3

EUSKARAREN ERABILERA LESAKAN 2011					
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
Euskaraz	219	41	129	19	408
Gaztelaniaz	33	6	130	44	213
Guztira	252	47	259	63	621
Erabilera	86,9	87,2	49,8	30,2	65,7

EUSKARAREN ERABILERA ADIN TALDEKA HERRIZ HERRI 2011				
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Arantza	92,1	100,0	80,4	81,5
Bera	57,0	58,8	28,9	33,3
Etxalar	72,4	93,3	32,7	36,6
Igantzi	93,4	100,0	60,4	100,0
Lesaka	86,9	87,2	49,8	30,2
GUZTIRA	78,7	76,4	45,5	44,0

- Azpimarratzekoa da **Beran helduen eta adinekoen erabilera nabarmen baxuagoa** dela.
- Etxalarren eta Beran alde handia dago haur eta gazteen, eta heldu eta adinekoen artean. **Beran, haur eta gazteen erabilera mailak helduena halako bi** da, eta **Etxalarren, aldea handiagoa** da oraindik ere.

3.4. Kale erabileraren bilakaera herriz herri


EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA HERRIZ HERRI BILAKAERA 1994-2011										
	1994	1995	1997	1999	2001	2003	2006	2008	2010	2011
Arantza	90	99	97	78	99	86	85	97	85	85
Bera	38	41	53	41	38	46	51	42	65	44
Etxalar	52	62	75	72	63	55	65	82	55	50
Igantzi	77	87	83	67	65	66	62	87	83	81
Lesaka	65	53	58	64	68	51	48	52	60	66



- **Lesakan** hirugarren urtez jarraian **gora egin du erabilera (% 66)**. Berako 2010eko **emaitza** ez ohikoa izan zela erran beharrean gaude (urte hauetako media % 46 da, eta aurtengo emaitza hortik hurbil dago).
- **Etxalarren** aurtun ere **behera** egin du erabilera (kanpoko jendearen eraginez), eta hagitz hurbiletik jarraitu beharko dugu aurrerantzean bilakaera zein izanen den.

5. EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA PAREZ PARE

EUSKARA GAITASUNA, ETXEKO HIZKUNTZA ETA KALE ERABILERA	
Euskaldunak (2001)	79,1
Etxeko hizkuntza euskara (2001)	57,5
Etxeko hizkuntza euskara eta biak (2001)	76,6
Kale erabilera (2011)	60,5



- Esku artean ditugun datuei erreparatuta, **kale erabileraren datua (%60,5) baxuena** da, **euskara gaitasunarekin (%79,1)** eta **etxeko hizkuntzarekin (%76,6)** euskara eta euskara zein gaztelania batuta) konparatzen badugu.
- **Ezagutzaren eta erabileraren artean jauzi handia dago (ia 20 puntukoa), eta hori kezkatzeko moduko datua da.**

6. ONDORIOAK

Kale erabileraren neurketan jasotako datuen arabera, Bortzirietako **erabilera zenbatekoa % 60,5** da. 2011ko neurketan, hamarretik sei ari zen euskaraz. Bortzirietako erabilera maila Euskal Herrikoa (%14,2) baino aunitzez altuagoa da. Inguruko eskualdeekin alderatuz, Behe-Bidasoko erabilera maila %13,8 zen 2001ean, eta, datu gaurkotuak esku artean, Malerrekakoa % 73,6 da, eta Leitzaldekoa %72 (azkeneko bi horiei erreparatu beharra diegu bereziki).

10 neurketa egin ditugu metodologia bera errepikatuz. **Emaitza apalenaren eta altuenaren artean 10 puntuko aldea dago (%59 eta % 69)**. Emaitza guztien **media % 63,5** da. Azkeneko hamabortzaldian erabilera mailan gorabeherak izan dira, eta, 2008ko eta 2010eko neurketekiko, jaitsiera. **Ezin dugu erran aztergai dugun epealdian euskararen kaleko erabilerak gora egin duenik, ezta behera egin duenik ere**. Hortaz, funtsean **erabilera maila mantendu** egin dela erranen dugu.

Adin taldeak

Haurrena da euskara gehien erabiltzen duen adin taldea. Ia **10etik 8 euskaraz** ari zen (**%78,7**).

Azken urte hauetako datuekin alderatuta **erabilera maila apalxeagoa** izan da haurren artean. Izan ere, neurketa gehienetan, **% 80tik gorakoa** izan da haurren erabilera zenbatekoa.

Gazteen artean, azken urteotako **goranzko joera eten** da. Hala ere, **lau emaitzarik onenak azkeneko lau neurketetan**⁴ izan dira. Mailarik altuena, 2010ekoa da (% 84), eta 2011koa eta 2008koa parekoak dira (%76).

Haurrak eta gazteak ertaintetik goiti daude nabarmen, eta, **helduak eta adinekoak**, berriz, **ertaintetik beheiti**⁵.

Helduen artean, euskararen erabilerak **beheranzko joera** izan du, eta, bi neurketatan izan ezik, **mailarik apalena helduen artean** jaso da. 10 neurketa hauen **media % 50 ingurukoa** da. Helduena adin talde zabalena da, eta gizarte zuzendaritza hari dagokio. Kezkagarria da hainbertzeko aldea izatea gazte eta haurrekiko, eta 15 urte hauetan hobekuntzarik sumatu ez izana helduen erabileran. Mankomunitatetik **helduen erabileran eragiteko neurriak** hartu beharko dira.

Sexua

Gizonezkoen artean altuagoa⁶ da erabilera zenbatekoa (**% 62,1**), **baina aldea dezente murriztu da**. 2008ko eta 2011ko neurketetan alde adierazgarria zegoen gizonezkoen eta emakumezkoen artean (betiere, gizonezkoen artean erabilera maila altuagoa izaki). Ordea, aldaketa zantzuak antzematen dira adin taldekako emaitzei erreparatuta, eta ikusiko dugu hurrengo neurketetan joera aldaketa berresten ote den. Izan ere, gazteen eta helduen artean, gehiago egiten dute euskaraz emakumezkoek gizonezkoek baino. Agian Euskal Herrian nagusi den joera orokorrera ari gara hurbiltzen, baieztapen hori egiteko goizegi bada ere⁷.

Adin talde berekoen arteko elkarrizketak

Haurrak euren artean ari direnean lortzen da **erabilera daturik altuena, % 88,7**. Haurren arteko elkarrizketei erreparatzen badiegu, erabilera mailaren **media aztertutako 4 urteotan % 90 pasatxo** da. Horrek erran nahi du **10 elkarrizketatik 9 euskaraz** direla haurren artean. **Gazteen arteko erabilera datua ere altua da, % 79,7**, 2010arekiko behera egin badu ere. Emaitza baikorra da, gazteen arteko erabilera osasuntsu dagoela erakusten digulako, eta, beraz, norabide onean goazela. Izan ere, azken urte hauetako emaitzek agerian uzten dute **haurrek eta gazteek euren artean nagusiki euskaraz** egiten dutela. **Helduek euren artean** erabiltzen dute **gutxien** euskara (neurketa honetako **emaitzarik kaxkarrena** da), **% 33,8**.

⁴ *Hirugarren eredu*a bigarren ereduaren jarraipena da berreskurapen linguistiko baten kasuan. Ereduek honetan gazteak bigarren taldea izatera pasatzen dira euskararen erabilerari dagokionez. Hori bereziki hezkuntzari esker eta euskararen ezagutzaren hedapenagatik gertatzen da. Lanean erdara izaten delako hizkuntza nagusia, neurri handi batean euskara denek ez dakitelako, helduena da talde erdaldunena hizkuntzaren erabilpenari dagokionez. *Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.

⁵ Adinaren arabera datuei erreparatuz gero, hizkuntza normalizazio-prozesu batean egon daitekeen hurrenkerarik onena lortu da; beraz, zenbat eta gazteago izan orduan eta euskararen erabilera altuagoa dugu. *Euskal Herriko kale erabileraren V. Neurketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.

⁶ Egoera diglosikoetan emakumeak izan ohi dira hizkuntza minorizatua uzten duen lehenengo taldea. Izan ere, talde ahulenean hizkuntza minorizatua uzteko ohitura izan ohi dute beste taldeek baino lehenago. Gainera, emakumeek zaintzen eta hezten zituzten umeak eta, normala denez, umeen etorkizuna ahalik eta hoberena ziurtatzeko hizkuntza prestigiotsuena erakatsi ohi diete umei eta beraz hizkuntza gehiengotua gehiago irakasten da egoera diglosikoetan, hizkuntza gutxiengotuaren transmisio intergenerazionala apurtuz. *Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.

⁷ Espero genuen bezala, emakumeen aldeko aldeak nabarmenak dira haurren, eta batez ere gazteen artean. Heldu eta zaharren artean, berriz, aldeak oso txikiak dira, baina arestian aipatu bezala, salbuespen bakarrarekin, beti emakumezkoen aldekoak. Kike Amonarriz. *2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak*. Bat aldizkaria. 2007ko iraila (64. zenb.).

Arestian ateratako ondorioa berretsi eta indartu bertzerik ez du egiten datu honek, alegia, helduen artean euskararen erabilera baxua dela eta adin talde horretan bereziki eragin beharra dagoela.

Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketak

Adin talde ezberdinekoen arteko elkarrizketetan, haurrik ez denean, erabilera maila jaisten da, **% 40,4**raino. Azkeneko neurketetan egiaztatu da, oro har, gutxiago egiten dela euskaraz artean haurrik tartean ez denean, baina bildutako laginak txiki xamarrak direla aitortu beharra dugu. Adin talde ezberdinekoak elkartzen direnean, eta, haurrak tartean direnean, nahiz eta mintzakide ez izan, erabilera **zenbatekoa % 46, 4** da. Emaizta haurrak ez daudenean baino hobeagoa da, eta, hala ere, emaitza orokorra baino 14 puntu baxuagoa. **Erabilera maila orokorretik beheiti** kokatzen da adin ezberdinen arteko erabilera zenbatekoa, haurrak presente egon arren solaskide ez direnean. **Haurrak presente direnean eta gainera solaskide, erabilera mailak dezente egiten du gora (% 71,7)**. Horrek agerian uzten du **haurrak solaskide izateak erabilera maila gorantz** eramaten duela⁸ (haurren presentzia hutsak ez du hori neurri berean lortzen). 2006tik aurrerako neurketetan nabaria da **haurrak solaskide izateak eragin handia duela talde ezberdinekoen arteko elkarrizketetan**, euskararen **erabilera altuagoa** izan dadin.

Euskararen erabilera herriz herri

Bortz herrien artean **alde nabarmena** dago erabilerari dagokionez. **Arantzakoa** da emaitzarik **altuena (%85,4)**, eta, **Berakoa**, berriz, **baxuena (%43,9)**. **Arantza eta Igantziko** zenbatekoak **antzekoak** dira. Azpimarratzekoa da **Beran helduen eta adinekoen erabilera nabarmen baxuagoa** dela. Alde handia dago herri txikien eta handien artean. Zenbat eta herri handiagoa izan, orduan eta eskasagoa erabilera maila. Kezkatzeko moduko datua da hori. Izan ere, zerbitzu gehienak eta dinamika sozial azkarrena herri handietan baitaude⁹. **Etxalarko emaitzek aparteko azalpena** eskatzen dute. Maiz **kanpoko jende aunitz** dabil herrian barrena, eta horrek eragin nabarmena dauka.

Lesakan hirugarren urtez jarraian **gora egin du erabilerak (% 66)**. **Berako** 2010eko **emaitza** ez ohikoa izan zela erran beharrean gaude (urte hauetako media % 46 da, eta aurtengo emaitza hortik hurbil dago).

Ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzia

Kale erabileraren datua (%60,5) baxuena da, **euskara gaitasunarekin (%79,1)** eta **etxeko hizkuntzarekin (%76,6)** euskara eta euskara zein gaztelania batuta) konparatzen badugu. **Ezagutzaren eta erabileraren artean jauzi handia dago¹⁰ (ia 20 puntukoa)**, eta hori **kezkatzeko moduko datua** da. Ez dugu datu gaurkoturik esku artean, baina pentsatzekoa da azkeneko 10 urte hauetan euskararen ezagutza mailak zertxobait gora egin duela. Erabileran aldaketa adierazgarririk ez denez izan, **ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handitu dela susmatzen dugu**, nahiz eta baieztapen hori frogatzeko datuak falta zaizkigun (Nafarroako Gobernuak 2006an ez zuen euskarari buruzko galderarik egin biztanleriaren zentsoa egiterakoan, eta 2011n galdera hori egin badute ere, emaitzak oraindik ez dira argitara eman, eta ikusteko dago herriz herrikako datuak izanen ote ditugun).

⁸ Euskal Herri osoan haurren presentziak asko baldintzatzen du hizkuntzen hautaketa. Izan ere, askoz gehiago erabiltzen da euskara elkarrizketan haur bat presente bada. Bortzirietan haur bat presente izanik euskararen nagusitasuna handia da. Horrek transmisioa asko zaintzen dela adierazten du, baina euskararen eremua haurrei lotuta dagoela ere adierazten du eta horrek baldintzatzen du imaginario linguistikoa, eta euskara haurren hizkuntza bihurtzen da. Euskararen aldeko indar ideologikoa handia eta baikorra segitzen den bitartean bilakaera positiboa izango da baina gizartean beharrik ez bada sentitzen eta indar ideologikoa jaisten bada euskararen transmisioa oraingo neurri horietan ez egiteko arriskua dago. Datu horiek erakusten dute euskararen eremu pribatua zein den: haurrena eta bereziki transmisioarena. *Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.

⁹ Bera Bortzirietako herri handiena dela kontutan hartu behar dugu. Izan ere proportzioan garrantzia handiagoa dauka beste herriein konparatuta. Herri handienetan jasotzen direlako zerbitzu batzuk eta beraz herri txikietatik ateratzen direnean, euskaldunek erdara erabiltzeko beharra izan dezakete. Bestetik herri handienak erdua izaten dira eta prestigioa izaten dutenez, hizkuntza ohituretan eragin handia izaten dute. Datu horrek erdara gehiengotua dela frogatzen du eta Bortzirietan egoera diglosiko batean aurkitzen dela pentsatzera bultzatzen gaitu: ezagutzan euskara nagusia izanik, erdara prestigio gehien duen hizkuntza baita. *Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.

¹⁰ Ezagutzatik erabilerara jauzi bat eta galera bat badago (...) Alegia, ezagutzen duen baino jende gutxiagok erabiltzen du euskara. Gainera egoera diglosikoetan erabilera eremua zenbat eta formalagoa izan zenbat eta etxeko txokotik zenbat eta urrunago izan orduan eta murriztagoa izango da euskararen erabilera. Hori da behintzat maneiatu dezakegun hipotesia. Eremu formalak aipatzen dugunean, gaur egun hezkuntzaren eremua salbuespena izango litzateke. *Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa*. Soziolinguistika Klusterra. 2006.